



## Azoka ekologikoa izango da bihar goizean Trianguloan

**TOLOSA** ▶ Barazkiak, fruta,  
esnekiak, pastak, pintxo  
bereziak, mermelada, ogia...

**GOIZA** ▶ Goiz osoan izango  
dira postuak jarrita,  
9:00etatik 14:00etara

**HELBURUA** ▶ «Elikagai  
garbiak sortzea» du helburu  
nekazaritza mota honek ▶ 2

HITZA



## Eskualdeko ordezkariak Montmeloko moto lasterketan

**TOLOSALDEA** ▶ Martin  
Lopetegi pilotoa eta  
Zabaleta eta  
Lopetegi laguntzen ▶ 5

**TOLOSA** ▶

## «Argazkiaren legealdia» dela dio T.Bizirik-ek

Gobernuak «iluna»  
omen du nagusi ▶ 3

**ARESO-ASTEASU** ▶

## Asteburuan ere jai giroan jarraituko dute denentzat antolatutako ekitaldi alaiekin

Asteasun Jubilatuen Eguna izan zuten atzo; gaur hasiko dira Aresoko jaiak ▶ 7



GIZARTEA ▶

# Azoka ekologikoa izango da bihar goizean Trianguloan

Besteak beste, barazkiak, fruta, esnekiak, pastak, prestatutako pintxo bereziak, mermeladak eta ogia jarriko dituzte salgai 09:00etan hasi eta 14:00ak bitarte

## IRATXE ETXEBESTE

Tolosako Udalak eta Biolurrek antolatuta, Nekazaritza Ekologikoaren Azoka Berezien lehendabiziko hitzordua izango da bihar herrian 09:00etan hasi eta 14:00ak arte. Antolatzaileen esanetan, «Euskal Herria osotik, Euskal Autonomia Erkidegotik, Nafarroatik eta Iparraldetik etorritako saltzaileak» izango dira bertan, eta, besteak beste, barazkiak, fruta, arrautzak, esnea, gazta —behi, ardi eta ahuntzena—, ardo, sagardoa, ezta, mermeladak, ogia, pastak eta prestatutako pintxo bereziak jarriko dituzte salgai Trianguloan.

Aipatutako produktuez gain, Ekonekazaritzak jarritako informazio mahaia aurkituko dute bertara hurbiltzen direnek azoka gunean. Nekazaritza ekologikoarekin lotutako liburu, aldizkari eta informazio orriak izango dituzte herriarren eskura, eta, berrikuntza gisa, Ekonekazaritzak, Biolur Nafarroak eta Iparraldeko Biharko Lurraren Elkarteak elkarlanean argitaratutako barazkigintzako monografiko praktikoa batzuk ekarriko dituzte. «Informazioa emateaz gain, hazi ekologikoaren gainean egiten ari den esperimentazio lanaren eta Euskal Herriko hainbat baserrietan jasotako hainbat haziren erakusketa ere jarriko dugu», adierazi dute Ekonekazaritzako kideek.

Azokan erosleak aurkitu ahal izango dituen elikagai guztiak «produktzio sistema ekologikoan zertifikatutakoak» direla azaldu dute antolatzaileek. Gainera, Nekazaritza Ekologikoaren azoka guztietan be-



Gero eta oihartzun handiagoa ari dira sortzen azoka ekologikoa; argazkian, iazko Tolosakoa. I. ASENSIO

zala, Tolosakoan ere saltzaileek arto almidoiz egindako poltsak izango dituztela argitu nahi izan dute: «Ohiko plastikozko poltsen parekoak dira, baina %100 deuseztagarriak eta konpostagarriak». Papezko poltsak ere eskainiko dituzte saltzaileek.

Azokaren inguruko beste ekitaldi bat izango da, urteroko gisan, Mendikoik eta Ekonekazaritzak antolatutako Nekazaritza Ekologikoan Trebatzeko VI. Ikastaro Trinkoaren diploma banaketa. Eguerdian aldean egingo dute ekitaldi hori, Kultur Etxeko areto nagusian.

Tolosakoa lehena bada ere, Elorrioren, Hondarribian, Zarautzen, Busturian, Donostian, eta Hazparnen ere izango da, besteak beste, azoka ekologikoa ikusteko aukera, uztailean eta abuztuan zehar.

## Nekazaritza ekologikoaz

«Nekazaritza ekologikoaren oinarria eta helburua, Lurraren osasunerako eta gure osasunerako elikagai garbiak eta onuragarriak sortzea da; eta, hori, lurraren emankortasunaren eta ekosistemaren oreka zainduz, abereen bizi-baldintza duinak ziurtatuz, hondakin toxikorik sortu gabe, eta ongari, botika edota gehigarri artifizialik erabili gabe» egin behar da, adituaren esanetan.

Eusko Jaurlaritzak 1996ko irailean arautu zuen Nekazaritza Ekologikoa Euskal Autonomia Erkidegoan. Orduetik hona, Nekazal Industria eta Politikarako Zuzendaritza da EAEn nekazaritza era hori kontrolatzen eta bere produktak ziurtatzen dituen. Ziurtatzearen adierazgarria da nekazaritza ekologikoaren zigilua edo etiketa.

Nekazaritza Ekologikoaren Euskadiko Federazioak ziurtatuta dauden Euskadiko produktoreen eta salmenta puntuen zerrenda argitaratzen du urtero. Bestalde, Ekolurra aldizkariaren bitartez nekazaritza ekologikoari dagokion informazioa zabaltzen da.

«Azoka ekologikoa nekazaritza ekologikoaren egoeraren termometroa direla esan



Produktu ekologikoa. I. ETXEBESTE

daiteke». Hala uste dute gai horren inguruan lan egiten dutenek: «Bertan ikus daiteke urtetik urterako eskaintzaren bilakaera. Baina, horrez gain, ez dugu ahaztu behar azoka ekologikoa harremanetarako garrantzizko gune direla: alde batetik, produktore ekologikoen, eta, bestetik, kontsumitzaile eta produktore ekologiko izateko asmoa dutenen atreko topagunea, alegia».

Izan ere, produktuak eta produktoreak ezagutu daitezke; galdetu, informazioa jaso, eta, jakina, erosi, azoka horiek erosteko egiten baitira. Urtean zehar askorentzat lortzeko errazak ez diren produktu ekologikoa ezagutzeko, erosteko eta probatzeko aukera dago. ◀

GIZARTEA ▶

## Gaur hasiko dira Amarozko jaiak haur jolasekin

16:00etan emango diete gaur auzotarrek Amarozko jaiak hasiera haur jolasekin. Bertan parte hartzen dutenen artean sari banaketa egin, eta txokolate jatea izango dute ondoren emeek San Blas elkartean eta jubilatuek Beti Gazteak elkartean lokaletan. 20:00ak aldera koadrilaren arteko trikipotea egingo dute, eta 23:00etan dantzaldia izango da Izotz taldearen eskutik.

KULTURA ▶

## Leidor zinema aretoko pantaila erraldoiari agur

Tolosako Udalak eta herrian sortu berri den zinemazaleen elkarteak antolatuta, agur berezia egingo diete asteburuan Leidor zinema aretoko pantaila erraldoiari. Horretarako, sei zinema saio eskainiko dituzte gaurtik igandera: *La guerra de las galaxias* izango da gaurkoa, 19:30ean. Bi euro ordaindu beharko dute helduek eta haurrek sarrrera doan izango dute.

GAU GIRO ▶

## Mariachi Artizar taldearen saioa gaur gauean

Gau Giro-ren baitan, emanaldia eskainiko du gaur gauean Mariachi Artizar taldeak; Plaza Berrian izango da 22:30ean hasita. Tolosako Udala Musika Eskolako biolin, biola eta biolontxelo ikasleek osatutako taldea da, eta laguntzaile gisa izango dituzte beste musikari batzuk ere: tronpetak, teklatu, kontrabaxu eta eskusoinu joleak.

GIZARTEA ▶

## Zezen-plazaren urteurreneko bideo aurkezpena

Toros-Tolosako zezenak elkarteak ikus-entzuteko dokumentu bat osatu du zezen-plazaren mendeurreneko ekitaldietan ateratako irudiek, eta astelehenean aurkeztuko dute, 20:00etan, Kultur Etxeko areto nagusian. Herriar guztiak egin diete bertara joateko deia.

MURTENGO TOUR-A MEDITERRANEOAN EDO KANARIAR IRLETAN AMATUKO DA!!

tropela.net  
WWW.TROPELA.NET

QUO  
hitza

POLITIKA ▶

# TB: «Irudiaren, argazkiaren legegintzaldia bizi dugu»

Gobernuaren bi urteko jardueraren balantzea egin du Tolosa Bizirik herri ekimenak; haien esanetan, «iluna du nagusi udal gobernuaren ibilbideak»

LEIRE MONTES

«Iluna du nagusi udal gobernuaren bi urte hauetako ibilbideak». Hala laburbildu du Tolosa Bizirik-ek (TB) egungo gobernuaren bi urteko jardueraren. Herenegun arratsaldean egin zuten balantzea herri ekimeneko udal ordezkari Antton Izagirrek, Hektor Espinek, Begoña Aldalurrek, Iban Ortizek eta Aitor Iztuetak. «Beste behin ere, udalbatzaren osaketa ez demokratikoa» ekarri zuten gogora: «Frankismo garaian bezala, udalbatza herriaren borondatea alde batera utzita osatua dago, bost zinegotzik ez baitute zilegitasunik, zinegotzi ez legitimoa dira».

Horren harira, EAJk egindako balantzea gogoratu zuten, eta ezker abertzaleak parte hartzen ez duela azpimarratu behin eta berriro: «Lotsagabekaria iruditzen zaigu alkateak udal parte-hartzaileez hitz egitea, tolosarron %24ren ordezkariak udaletxetik kanpora daudenean, eta ez zaienean parte hartzen zuten. Eta ez du parte hartzen EAJk, EAK eta EBk, hau da, Gobernu Batzordeak, ez duelako *apartheid* egoera gainditzeko borondatearik erakusten». Zentzu horretan, Azkoitian egin berri dena Tolosan egitea proposatu zuten udal ordezkariak.

Bazterketa politikoa ere kezu agertu ziren: «Bere gor-



Ezker-eskuin: goiko lerroan, Iban Ortiz eta Aitor Iztueta; eserita, Antton Izagirre, Begoña Aldalur eta Hektor Espin. LEIRE MONTES

dintasun osoan aplikatzen ari dira. San Joan suan gertatutakoa dugu adibide. Tolosa Bizirik taldeko hautetsiak udalbatzarekin batera ager ez gintzen, dagokigun lekuan egon ez gintzen, udalbatza ez zen suaren inguruan bildu, urte luzetako ohitua albo batera utzi. Makurrago joka al liteke?».

«Hori bai, alkateak suari saltoxoia egin eta ETBn elkarriketa». Alkatea «flash-ak eta telebistako argiak liluratzen» dutela kritikatu zuten TB-ekoek: «Foto alkatea bezala ezaguna izango da, zalantzarik gabe. Kudeaketarik edo gestiorik xumeena ere, berehala argazki bihurtzen du. Garrantzi han-

diagoa ematen zaio proiektuak aurkezteko moduari, benetan proiektu horiek duten mamia eta herriari ekarriko dioten onura baino». Haien esanetan, «bizi duguna irudiaren eta argazkiaren legegintzaldia bezala» definitu daiteke: «Baina, irudien atzetik, zer da benetan eskaini dezaketea?».

EAK egindako balantzea ere izan zuten hizpide: «Gobernu horren kideetako batek argiak eta ilunak ikusten zituen jardueran. Gobernu talde batek behar-beharrezkoa duen batzulari eta leialtunari buruz egin daitezkeen hausnarketez gain, guk Onintza Lasaren auzardia txalotu nahi dugu. Egia

hauxe baita: argia baino, iluna du nagusi udal gobernuaren bi urteotako ibilbideak».

## «Aurrekoen proiektuak»

Eguneko udal gobernuak «kudeaketa talde soila» osatzen duela ere salatu dute plataformakoek: «Irizpide politikoa gobernu jardueratik kanpo utzi dituzte. Aurreko udal gobernuak ez bezala, udalgintza lanbide bilakatu dute: beren buruari soldata ona jarri, eta karguan kosta ahala kosta mantentzea dute helburu».

Era berean, kudeatzen ari diren proiektu gehienak aurreko udal gobernuak martxan jarritakoak direla adierazi zuten, Usabalgo kiroldegia kasu: «Aurreko udal gobernuak eta herriko kirol taldeek elkarlanean jarri genuen martxan. Egungoen eskutik, kirolarien iritzia albo batera geratu da. Horrela soilik uler daiteke erabiltzaileek hemendik aurrera ordaindu beharko dutena lau aldiz handitzea, edota uztailen kiroldegia itxi behar izatea. Guztiak kirolariengan sortu duen haserre eta kaltea bost axola zaie».

Bidegorriak «zur eta lur» utzi dituela ere esan zuten: «Aurreko gobernuaren proiektua da sortze beretik. Baina egin dute, bidegorria Rondilla kaletik pasaraztean, ez du ez hanka ez bururik». Haien esanetan, trafikoa plangintza orokarraren

baitan txertatzen zen bidegorria, eta «zatika aplikatzeak osotasunean zuten koherentzia eta potentzialitatea galdutakoak dio». Gaia berraztertzea eskatu zioten udal gobernuari, eta «eztabaidarako batzorde ireki bat sortzea» proposatu zioten.

Beste hainbat proiektu «bi urte geldirik egon eta gero haienak balira bezala» aurkeztu dituztela ere salatu zuten: Gaztegunea, Emakumeen Plan eta Amaroz auzoko peatonalizazioa. «Dagoeneko martxan zeuden proiektuak kudeatzea gai izatea benetako arrakasta bilakatu dute. Euren ezintasunak liluratutik edo...».

«Geldirik» jarraitzen duten proiektuak ere aipatu zituzten: «Alde Zaharrean proiektu bakar bat ere ez, ezker alde era bat geldirik... Eta non daude kanpainan agindutako 2.000 aparkalekuak? Non etxebizitza sozialak? Noren interesak nagusituko dira Voith-Gorostidi eremuaren garapenean?».

Gainera, tolosarron interesak babestea egokitu zaionean alkateak «alderdiarenak eta interes pertsonalak aurretik jartzea nahiago izan» duela salatu zuten TB-ekoek, Gerontologikoaren gaia mahai gainean jartzean. Gobernu Batzordearen «utzirik barkaezina» azpimarratu zuten: «Ez da nahikoa, agente ardurak dituenarentzat, kaltetuak mobilizazioetan parte hartzea deitzea. Ederki kontrajariak ageri zaizkigu gai honetan alkateak erakutsi duen iluntasuna, dena ezkutatu nahia, eta ohikoa den argazkietarako joera».

Azkenik, udaletxeko eguneroko zereginetan «euskarak izan duen atzerkadaren aurrean kezkatutik» agertu ziren; «batez ere, aurreko legegintzaldian hartu zen bide eredu-garria erabat zapuztu delako».

EKONOMIA ▶

## Tolosana paperfabrika: atek itxi eta Andoainera

Iraun ahal izateko Leitzaran paperfabrikarekin bat-egingo du; Tolosan atek itxi eta Andoainen hasiko du ibilbide berria; udal gobernuak enpresa laguntzeko idatzia onartu du osoko bilkuran

ERREAKZIOA

Tolosana paperfabrikak atek itxi egingo ditu laister. Enpresak dituen arazo ekonomikoak aurre egiteko eta iraun ahal izateko, Leitzaran paperfabrikarekin bat egingo du. Hala, Tolosatik alde egin eta Andoainen hasi beharko du bere ibilbide berria.

Horren aurrean, eta «herria-

rentzat ikurra izan den horrelako enpresa baten galera sentituz», enpresari babesa eta laguntzeko idatzia onartu berri du udal gobernuan, osoko bilkuran. Gobernuan dauden alderdi guztien onespina jaso zuten erabakiak.

Jokin Bildarratz alkateak uztailaren enpresaren ordezkarietarekin bildu dela azaldu zuten udalbatzarrean. Enpresak ala

eskatuta, udal planteamenduen modifikazioa izango dute hizpide bi aldeek, «enpresaren eta herritarren onurarako».

Gobernuko ordezkariak «langileen egoera eta eskubiak eta Tolosana paperfabrikari lotuta dauden beste enpresen egoera kontuan hartuko duen irtenbidearen aldeko apustua» egin zuten.

## iragarki laburrak ▶

### LANA

Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Deitu 943 69 19 33.

Umeak zaintzeko. Bi neska gazte udan umeak zaintzeko eskaintzen dira. Telefona: 686 54 14 09.

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Irudietan.** Irudi bildumen zerrendan, San Joan eguneko Tolosako argazkiak eta II. HITZA Pilota Txapelketakoak daude ikusgai.



Ume eskopetariak. L. MONTES

ZIZURKIL ▶ NEKAZARITZA

## Jardunaldiak sagardoaz Fraisoro Mendikoi eskolan

Sagardoaren inguruko kulturari buruz aritu ziren atzo egindako ate irekien egunean



Igartubeiti baserriko ibilaldi birtuala ikusgai izan zen atzokoan. i.e.

I. GARCIA

Sagardoa izan da mintzagai Fraisoro Mendikoi eskolak antolatutako edari honi buruzko 3. Formazio Jardunaldietan. Teknikoei eta profesionalei zuzendutako ikataroez gain, atzo, jardunaldien azken egunean sagardoaren kulturari buruz aritu ziren. «Aurten beste begirade bat ematea nahi genuen, ikastaro teknikeoz gain eta horregatik antolatu dugu ate irekien egun hau», azaldu dio HIRZARI Beatriz Eguzkitzak, eskolako Etegabeko Heziketako eta jardunaldi horien arduradunak.

Horrela, 30 bat lagun bildu ziren atzo eta sagardoa eta sa-

gardogintzari buruzko historia, bai Euskal Herrikoa bai Asturiasekoa, ezagutzeko aukera izan zuten. Besteak beste, Ezkio-Itxason kokatuta dagoen Igartubeiti baserri-museoa izan zen ere protagonista. Baserri horrek, historian zehar beste euskal baserri askorek bezala, tolarre zuen etxebizitzaren baitan eta oso garrantzitsua izaten zen sagarra eta sagardoa bertako bizilagunen zatat. Atzo bildutakoek baserriaren bisita birtuala ikusteko aukera izan zuten. Sagardoa dastatzeko aukera ere izan zen, hamaiketako Fraisoroko sagardotegian egin baitzuten, eskolan bertan egiten den edariaz gozatzu.

ANOETA ▶

## Euskara ikasten aritu direntzako diru laguntzak

Udalak banatuko ditu 2004-2005 ikasturtean aritu diren ikasleei

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak diru laguntza jasotzeko aukera emango die 2004-2005 ikasturtean euskara ikasten aritu direnei. Eskaera egiteko azken eguna hilaren 15a da. Horretarako udaletxeko eskaera-orria bete behar da; lan-egoera frogatu; euskaltegiko ziurtagiria aurkeztu; bertan adierazi beharko ditu euskaltegiak ikasleak ordaindu duen matrikula-kopurua, asistentzia-portzentajea eta klaseen aprobetxamendua eta banku edo aurrezki kutxako ordainketa-agiria.

Ikastaroen kasuan (%90eko asistentzia ziurtatuz) matrikularen %75a emango zaie lanean ari direnei eta %100a langabetuei, ikasleei edo etxeko lanetan ari direnei. Barnetegien kasuan matrikularen %50a lanean ari direnei eta %75 langabetuei, ikasleei eta etxeko lanetan ari direnei.

LEITZA ▶ EUSKARA



Mikel Irastorza, ezkerrean, eta Igon Bereau azalpenak egiten. J. ASTIBIA

# Euskararen alde egiteko, lanerako prest

EHE taldea sortu eta aurkeztu da; hurrengo ikasturtean ekinen dio lanari

JAIONE ASTIBIA

Atzo egin zuen agerraldia Leitzako Euskal Herrian Euskaraz taldeak (EHE), Aurrera elkartean bildu ziren hainbat herriko talde eragiletako ordezkarien aurrean, kulturgintzakoak, euskalgintzakoak eta politikagintzakoak denak, eta taldearen helburu bat eta bakarra «Euskal Herri euskalduna lortzea» dela berretsi zuten.

Igon Bereau leitzarria eta Mikel Irastorza EHE-eko kidea izan ziren aurkezpenaren arduradunak. Hasteko, duela 25 urte, 1979an, EHE sortu zenetik taldeak izan duen bilakaera laburra egin zuten, eta garai hartako mezua gaur egun oraindik ere egunerokotasun osoan dagoela baieztatu: «Euskararik gabe ez dago Euskal Herririk mezuak, oraindik orain bere balio osoa eta erabatekoa du, eta mezu hori hedatzeko behar-rean aurkitzen gara». Euskararen etorkizuna «kolokan dago, normalizazio oso urrun daukagu oraindik», zioten.

Herriko egoeraz orohar nahiko baikor azaldu ziren, «beste herriekin alderatuta», euskararen arloa «ongi» dagoela adierazi zuten, «baina, horixe, bere horretan dago» zehaztu zuten: «Leitza UEMAKO kidea 1993az geroztik, Euskararen Ordenantza badu, Udaleko langile guztiak euskaldunak dira, Bai Euskarari Ziurtagiriak iaz hasi ziren egiten, HIRZA ere sortu zen», aitatu zituzten ezaugarri baikor modura, baina «euskalgintza geldirik dago, aurrerapausorik eman gabe», eta badira beste hainbeste atal «oraindik batere lantzekoak daudenak», ziotenez.

Horrela, «euskararen defentsa sutsua», omen da EHE-en egin beharrekoa: «Eskaera piztea, zapalkuntza desberdinei aurre egitea, hauek gainditzeko dinamikak aurrera eramanez», eta horretarako talde sortu berrian «denon parte hartzea beharrezkoa» dela.

EMAKUMEEN EUSKADIKO TXAPELKETA 2005  
UZTARIL VILABONA

EGUNA - ORDUA	
2 17.00	
LEZAMA	
3 10.00	
LEZAMA	

Participating companies: Egarsi, MAPFRE, GORRIBERRI, etc.

BENLLET AUTOBERRI

VII. euskal selekzioaren eguna

ALGORTAKO PORTU ZAHARRA Uztailearen 3an

Participating companies: UEMAKO, GELTZA, etc.

KIROLA ▶

# Motorrak prest, Montmelon burutuko den lasterketarako

Irurako Martin Lopetegi pilotoa eta Ibarrako Mikel Zabaleta eta Alegiako Antonio Lopetegi mekanikoak izango dira proban



Martin Lopetegi Irurako motorreko pilotoak zazpigarren urtea du Montmeloko 24 orduko proban. HITZA

NOELIA LATABURU

Lehen postuan, eta hamasei puntuko aldearekin, ailegatu da Wurth taldea Espainiako Erresistentzia Txapelketaren hirugarren eta azken probara. Asteburuan korrituko dute motorrek, 24 ordu jarraian, Bartzelonako (Herrialde Katalanak) Montmelo zirkuituan. Txapelketako aurreko bi probetan ere podiumera igo zen taldea, Almerian (Espainia) hirugarren eta Albaceten (Espainia) bigarren sailkatu zelarik.

Bertan aritzen da piloto lanean Martin Lopetegi irurarra, beste bi gidariek batera, Tony Gil mallorcarra eta Fernando Martin katalana. Taldean, halaber, eskualdeko beste hainbat lankide ditu, Mikel Zabaleta ibartarra eta Antonio Lopetegi alegiarra; biak ala biak mekanikoak. Lasterketa bihar hasiko da 15:00etan eta 24 ordu beranduago amaituko da. Gidatuko duten motorra, berriz, 1.000 cc-etako Honda CBR bat izango da eta suspen-

tsioa aldatuta badu ere motorra seriekoa du. Martin Lopetegi irurarra zazpigarren urtez ariko da lasterketa honetan.

Eguna «oso gogorra» izango da; hiru pilotoez ordubetik eta hamar minutu egingo dituzte motorraren gainean, ondoren erreleboa egiten dutelarik. «Horrela, 24 orduetan 22 aldiz geratzen gara, denbora gubxiago galtzeko», esan du Lopetegi. Piloto bakoitzak gehienez bi ordu egin ditzake lo jarraian, txandak tartekatuz. Balaztapastilak ere hiru orduko aldatur behar dituzte eta azken txandan, piloto bakoitza 5 orduz aritu denean, masajisten laguntza behar izaten dute. «Hasieran indartsu hasten gara baina 5. erreleboan besoek eta hankek ez dute berdin erantzuten; gainera pistan izaten den presioa oso handia da». Zortak ere paper garrantzitsua jokatzen du kirol honetan, «motorraren inolako arazorik ez izatea ezinbestekoa baita».

Lan gogor honen atzetik, haatik, ilusio eta esperantza han-

dia duen lan taldea dago. Martin Lopetegi gidariak adierazi duenez, kirol hau praktikatzan duten guztiak «benetako zale-tasuna» dute. Irurakoa ez da profesionala baina aurrean «zorte handia» izan duela jakinarazi du, izan ere, aurreko urteetan maila ona erakutsi zuenez, «Wurth taldean aritzeko eskatu zidaten».

## Txapelketa eskuratzear

Espainiako Erresistentzia Txapelketak jende asko biltzen du Montmelon. Hau eskuratzeko «aukera handia» ikusten dute taldeko partaideek. Hala ere, aurkariak ere «oso onak» direla aitortu dute eta beste probetan aritu ez diren gidari askok ere hartuko dutela parte bihar.

MIKEL ZABALETA ▶ MEKANIKOAK

«Boxetan dugun presioa pilotoak pistan duena bezain handia da»



NOELIA LATABURU

Duela urte erdi utzi zion piloto izateari, «dirua kontuak zirela eta»; orain motorra lehiatzeko prest egotearen ardura hartu du Mikel Zabaleta ibartarrak. Montmelon asteburuan egingo duten karreraren bezperan bere ekipoaren gainean eta motorraren munduaz jardun du Zabaletak. 24 orduz lanean ariko da bera, bere taldekideekin batera, eta «oso gogorra» izango dela iragarri du.

**Nola bizi dituzu motorren karrerak pistaren beste aldean jarri zarenetik?**

Boxetan gauden taldeak —20 lagun inguru— presio handia du, pistako pilotoena bezain handia. Adi egon behar baitugu 24 orduetan motorraren alderdi guztiak prest egoteko.

**Zein izango da zure lana?**

Motorra ondo egotea karrera guztian zehar, pilotoen erreleboak nola egin eta matxurak konpontzea, besteak beste.

**Zein da arriskurik handiena motorrarentzat?**

Okerrena karreraren zehar istripua izatea da. Dena den, esperantza handia dugu eta, aurkariak oso indartsuak badira ere, gogor ariko gara; honeraino gure indarrarekin ailegatu gara.

**Non burutzen dituzue entrenamenduak?**

Askotan Frantziako pistetara joaten gara, besteetan Albacetera ere; baina motorrez gainezka egoten dira horiek, horrela ez direlarik proba asko egin, ez eta motorraren abiadurarik lortu.

**Motorren falta somatzen al duzu?**

Gustura jarraituko nuke piloto lanetan, baina diru kontuak direla-eta mekaniko lanetan hasi behar izan dut. Dena den, oraindik aritzen naiz motorraren, konpetizioan ez ibili arren. ◀

**OSTATUA**

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu  
Tel.: 943 67 15 48

**charanga**

**%50eko merkealdia**

Nafarroa etorbidea, 14  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 02 99

**Irurako Alastola**

Tratua Txantxerak aldi

uztatlafi  
1, 2, 3  
18:00-01:00

**Irurako**

**Garagardo azoka**

El Feria de la Cerveza de Irura  
1, 2 y 3 de julio

## GAZTELU ▶

Euskal film  
laburrak gaur  
Kontzejun

Uztailean Kontzejun film laburrak ikusi ahalko dira. Gaurkoan film labur euskaldunak izango dira, 19:30ean.

## IBARRA ▶

Danborradako  
entseguak  
hastear

San Bartolome jaietako danborradaren entseguekin hastear daude, eta parte hartu nahi dutenek ohiko lekue-tan eman behar dute izena; azken eguna uztailearen 5a izango da. Entseguak uztailearen 6an, 13an, 20an eta 27an eta abuztuaren 18an eta 22an izango dira Belabieta kiroldegian (helduek 21:00-etan eta haurrek 20:00etan); gutxienez 2 entseguetara joan beharko da. Haurren gurasoek uztailearen 5ean, 19.00etan Sendi-Ekintzan egingo den bilerara agertu beharko dute.

## TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
  - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amarozk dispens.: 672637
  - ▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

- ▶ **DYA:** 672536
  - ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
  - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
  - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

## IBARRA ▶ MOTORRA

III. Langostino Moto Festa  
egingo da bihar eta etzi

Aurten berrikuntza ugarirekin dator motozaleen festa: Stuntman edo motorrean eginiko akrobaziak, kontzertuak, show erotikoa, jolasak...

IÑIGO TERRADILLOS

Asteburu honetan izango da Ibarran III. Langostino Moto Festa. Motorrak eta jaia uzartzen dituen festa handia 18 motorzalek osaturiko Langostino Moto kultur elkarteak antolatzen du, Ibarako Udalak eta Keler-ek lagundurik, eta urteko garai honetako hitzordu garrantzitsu bihurtu da.

Bihar eta etzi burutuko da festa, eta aurten egitarau oparoa prestatu dute, berrikuntzez beterik. Aurtengoan bezala, urtetik urtera ekitaldi gehiago eta berriak sartzea espero dutela adierazi dute antolatzaileek. Horrela, berrikuntzen artean, Stuntman edo motoekin akrobaziak izango dira bihar arratsaldean; errubera batean ibili, errubera erre, birak egin, aurrerekoaren frenatu... izango dira ikusi ahalko diorenak besteak beste Euskal Herria kalean, eta «oso ikusgarria», dela azaldu dute antolatzaileek. Ikusgarriak izaten dira, baita ere, motorren gainean egiten dituzten jolasak, eta ikusgarria era berean, plazan ikusgai izango den eraldaturiko motorren erakusketa, hau da, *show bike*-a. Hau arratsalde osoan zehar izango da, zezen mekani-



Pasaden urteko Moto Festako une bat. D.GIBELALDE

koa bezala. Lehenengoaren eta bigarren kontzertuaren artean egingo den *show* erotikoa ere berrikuntza izango da. Eta biharko gaua bixitzeko asmoz bigarren kontzertua amaitzean jolasak egiteko asmoa dutela azaldu dute.

Igandean, berriz, motorrekin bira egingo dute motozaleek. Ibaratik atera, Leitzara iritsiko dira; handik, Uitzitik barrera Lekunberrira joango dira eta Saldiasera iristean hamaiketako egingo dute. Azpizroz-etik barrera Ibarrara iristean amaituko da 100 kilometro inguruko bira. Ondoren bazkaria egingo dute parte hartzaileek festari amaiera emateko. Bazkaria, gosaria eta afaria bezala Uzturpe ikasto-

lan egingo dira, bertan izango dute, halaber, atzerritik etorri direnek akanpatzeko gunea.

Bazkarian bertan egingo dira sari banaketak. Batetik jokoetan hoberen aritu diren hiru motozaleek txapela jasoko dute, eta bestetik, *show bike*-an hiru mailatan —*Transformacion harley custom*, *Custom* (edozein moto sartzen da hemen) eta *Chopper*— lehenari emango zaio txapela. Azkenik, best of show saria izango da jai osoko moto hoberenarentzat, eta honek txapela eta plaka jasoko ditu. Bestalde, parte-hartzaile guztiek kamiseta eta pin-a jasoko dute.

Motozaleei zuzendua bada ere, ekitaldi guztiak irekiak direla eta edozeinek har deza-

## EGITARAU ▶

## BIHAR

**14:00.** Festa hasiera.  
**17:30.** Jokoak.  
**19:30-20:00.** Stuntman ikuskizuna.  
**21:00.** Afaria.  
**23:00.** Kontzertuak: Lobo Electrico, Obligaciones eta Los Padrinos taldeekin.  
**00:30.** *Show* erotikoa.  
**Arratsalde osoan.** Zezen Mekanikoa eta *show bike*-a.

## ETZI

**9:00-10:30.** Gosaria.  
**11:00.** Motorrekin Bira eta hamaiketako.  
**13:00.** Ibarrara itzulera.  
**14:00.** Bazkaria eta festa amaiera. Lehiaketetako sari banaketak egingo dira.

kela parte eta jende guztia gonbidatu nahi dute Festara.

## Aparkatzea debekatuta

Bestalde, Udalak jakinarazi du bihar Moto Festaren baitan antolatu den Stuntman ikuskizuna dela eta, 14.00etatik 20.30era Euskal Herria kaleko 1 eta 17 zenbakien artean aparkatzea debekatzen dela.

## ABRAHAM OLANO ▶ TXIRRINDULARI OHIA

## «Tourreko lehen astea tentsio handikoa izango da eta kontu handiz ibili beharko dute ez erortzeko»

**Joxemi Saizar** ▶ Bihar hasiko da Frantziako Tourra eta bertan parte-hartzaile askotan izan den Abraham Olano txirrindulari anoetarra elkarrizketatu du HITZAK. Bizikletan entrenatzen harrapatu du.

## Nola ikusten duzu ibilbidea?

Beti bezala, lehen astea tentsio handikoa izango da eta kontu handiz ibili beharko dute ez erortzeko. Bigarren astean hasiko da mendia.

## Irabazlea alor guztiak menderatzen dituen txirrindularia izan beharko du beraz.

Gaur egun tarte handiak marrazten dituen eskalatzailerik

ez dagoenez, mendian eta erlojuaren kontra hobeto dabilenak irabaziko du.

## Jarraituko al duzu karrera?

Bai, Pirineoetara joango naiz eta Paun antolatu duten zikloturista proban parte hartuko dut.

## Bihar da www.tropela.net-eko porra egiteko azken eguna. Laguniezaguzu. Podiumerako zein ikusten duzu?

Armstrong eta ondoren Ulrich. Etxekoren bat nahiko nuke egotea, baina zaila ikusten dut. Hirugarren posturako Mayo, Heras eta beste batzuk ikusten ditut, lehen astean egi-

ten dutenaren arabera.

## Mendiko sailkapenerako?

Ez dut garbi ikusten. Lehen astea nola dihoan ikusi behar.

## Esprintetan?

Abaniko handia dago hor, Petacchi ez dagoela, beste guztiak parean daudelako. Agian McEwen.

## Erlojuaren kontra?

Armstrong eta Ullich.

## Talderik sendoena?

Armstrong-en CSC.

## Eta euskaldunen artean?

Beloki errekuperatuta ikusi nahi nuke. Garaterentzat agian gehiegi izango da Giroa eta Tourra egitea, ikusiko dugu.



Abraham Olano. HITZA

Eta beti sortzen da ustekabea ematen duen gazteren bat. ◀

SANPEDROAK ▶

# Asteburuan ere jai giroan jarraituko dute

Asteasun jubilatuko eguna egin zuten atzo; Areson gaur hasten dira festak

JAIONE ASTIBIA  
IMANOL GARCIA

Asteburua iristen ari den heinean, ekitaldiak berriro ere ugaritzen hasi dira sanpedroak ospatzen dituzten herrietan. Asteasun atzo jubilatuen eguna ospatu zuten. Meza eta Aitzondo elkarte hamaiketakoaren ondoren, Telleria eta Zerberio bertsolarien eta Xapre eta Zaharra trikitilarien saioa izan zuten plazan edadetuek. Gero, Udalak eskainita, bazkaria izan zuten frontoian. Iturriondo jatetxeak zerbitzatu zuten bildutako ehundik gora jankideei. Bazkalostean berriro izan zuten bertsolariei eta trikitilarietarako entzuteko aukera. Arratsaldean, Asteasuko X. Dantza Solteko Txapelketa egin zen, baina egunkari honen edizioa itxi aurretik ez zen oraindik garailen izenik ezagutzen. Gaur koadrilen eguna izango dute Asteasun. Besteak beste, herri bazkaria eta afariarekin.

## Areso ere festa giroan

Gaur iluntzean hasi eta igande arte, festa giroa izanen dute herrian: San Pedro eguna herenegun igaro bazen ere, asteburu honetan ospatuko dute Lagun artea gazteen elkarteek eta dagoeneko, noski,

egitaraua prest dute, beraien-tzat ez ezik, umeei eta herri guztiari ere egokituko zaiolarik zertan parte hartua.

Horrela, gaur gauean egingen duten afariarekin hasiko dira sanpedroak, bada, Areson. Lagun artea elkarteak bilduko dira, Pake tokin, denon artean etxetik eramandako jakiak jatera. Bertan jarritako gustuko musikarekin, herriko gazteek festa egingen dute: dantzatu, musika entzun... gazte festa, alegia.

Baina biharko indarrak gordezea ere ez zaie gaizki etorriko. Izan ere, goizean, baserrietara joatekoak baitira eskera, akordeoilari bat lagun dutela. Baserriz baserri ibiliko dira: «Askotan, hamaiketako atera-tzen digute eta bertan egonalditxo egin, soinua joz, eta hurrengora joaten gara, eta han ere berdin», argitu zuen atzokoan, Jone Lozanok, Oihana Nietorekin batera Lagun artea elkarte maiordomoa denak. Hala ere, esketik itzultzean, Pake toki elkarte bazkari mokadu bat egingen dute, berri-er.

Edonola ere, aurtengoan bada berrikuntzarik: bihar Ginkana jolasa egingen baitute umeentzat eta herrian barrena, altxorraren bila ibiliko dira. Eta herri afaria ere egingen



Areso. San Pedro Lagun artea elkarte gazteek ateratzen dute. JAIONE OLAZABAL

## EGITARAUA ▶

### ARESO GAUR

21:30. Lagun artea-ko kideen afaria, Pake toki elkarte.

### ASTEASU GAUR

Koadrilen eguna.

**Egurdian.** Koadrilen arteko bazkaria.

**18:00.** Haurrentzat zezen txiki eta poney-ak.

Arratsaldean zehar, Urolako trikitilari koadrila.

**21:00.** Herri afaria. Ondoren trikitilarien erromeria.

dute. Kasu honetan, txartelak bihar goiza arte oraindik hartzeko moduan direla adierazi zuten atzokoan, Sastinen nahiz okindegian.

Igandean, berriz, meza ondoren, Lagun arteko kideek, San Pedoren irudia herrian barrena ibiliko dute, herriko eskea egin baino lehen.



Asteasu. Jubilatuek adi jarraitu zituzten bertsolarien esanak. I. GARCIA

hitza

# lagunen txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

## 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

**Avalon**  
o s a g a i a k  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**honetekin**  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 24 30

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**ILUMINAZIOA**

**SHANTI KIROLAK**  
Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**MUGAR**  
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Ibarra.** Preso eta iheslarien aldeko porra, Tourrari buruz. 10 birrindulari —eta bi ordezeko—, eta 3 birrindulari talde aukeratu behar dira. Bihar eguerdian amaituko da izena emateko epea, Atari tabernan. Apustu bakoitza, 12 euro.

**Irura.** Garagardo Festa 18:00etatik 1:00ak arte. Ikastolaren alde.

**Lizartza.** Bihar IV. Gazte Eguna: poteoa 19:00etan; afaria Gaztetxean 21:00etan; onodren ekitaldia herriko gudarien alde eta 24:00etan Jone bakarlarria eta Izeba Pilarren llobak eta Janear-J Azkoitiko perkusio taldea.

**Tolosa.** Tolosa CFK binakako 37. Pala Txapelketa antolatuta du Berazubiko frontoian. Izen-ematea larunbata arte: bulegoetan 17:00etatik 20:00etara (Berazubin, 943 67 17 49) edo 607 447 677 telefonoan (Pello).

**Tolosa.** Udako ekintzak 16-18 urteko gazteentzat: paintball hilaren 20an eta karts-era irteera 22an. Izen-ematea, Kultur Etxean.

**MUSIKA**

**Ikaztegieta.** Jeshmar musika taldearen emanaldia 17:00etan kiroldegiko gimnasioan, heldu zen gazteentzat.

**Tolosa.** Gau giro: Artizar taldearen mariachi musika Plaza Berrian 22:30ean.

**ZINEMA**

**Tolosa.** Leidorko pantaila erraldoiari agur egiteko, *La guerra de las galaxias III* filma 19:30ean. Haurrak doan, eta helduek bi euro.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**

**Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria 3. 943 67 09 15.

**Leitza.** Erbiti. Lizarraga 7. 112.

**IRRATIA**

**Txolarre (FM107, FM101)**

11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa:* Irurako Garagardo Azoka, Langostino Moto Festa, birrindulari txapelketak... 19:00. Errepikapena.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Aitor Agirrebarrena



**URTE ASKOAN**  
Aitor eta amona. Ahalik eta hobekien ospatu zuen eguna eta eutsi goiari! Garaipena lortu arte aurrera bolie! Muxu handi bat aitabko. Haimar, Ekiñe eta Olatz.



**ZORIONAK**  
Ignacio eta Izaskun (Tolosa).  
Gaur zilarrezko ezteiak, egun ona pasatu!



**URTE ASKOAN**  
Ibai Gabirondo (Alegia).  
Gaur 7 urte. Zorionak familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Andoni Bartolome (Tolosa).  
Gurasoen eta Aitorren partetik, 6 muxu pottolo-pottolo.



**URTE ASKOAN**  
Manex Gurrutxaga.  
Gaur 9 urte. Ondo pasatu eguna eta muxu handi bat.